

## iritzia

## Euskal kulturginok, elkartu zaitezte! (I)

## Hutsegindako asmo baten historia

15erako deia daukagu. "Euskara greban" jarriko omen da... Isil-greban! Ikararriko isildaldia izango da, euskara bapatean mututuko denean. Herri honen historia luzea isilduko da.

Poliki-poliki isil arazi nahi dutenen kontrako protesta da euskararen greba. Hustuatu eta odolustu dutenek bertan behera utzi dute euskara kaminu bazerrean; "bizi hadi", esaten diote beste batzuk, baina bizibideak ukatzen dizkiote. Bizi beharrenek beharraz, azken protesta errotikoa egitera doa euskara: Isildu!

Baina euskara isiltzen den unea, izugarria izango da isiluea; eta euskaldunok —lantegian, eskolan, kalean, mendian, etxean, leihoan, teiltuan, sukaldean, tabernan— oihuka, deihadarka, garrasua, irrintzika, lekaiola hasiko gara.

15eko greba ez da nonbait greban bukatuko. Dinamika biziago baten abiadura izan behar omen du egun horrek. Eta egun horretan euskara mututu eta isilduaren ahotza bihurtuko garenok, indarberriurik eta asmoberriurik ekingo diogu aurrera euskararekin euskal kulturaren bururari.

Zein da asmo berria? Euskal kulturako talde, elkarte, erakunde eta sailak burruka berean elkartzea eta lan berean koordinatzea. Baina hori ez da asmo berria; eta bai berri beharreak.

Idazkitxo honetan asmo zaharberri horren historia laburra eman nahi dut, hain zuzen ere. Ez da seguruenik osoa izango.

## 1976-1978

Euskarari buruz agiria: horrela du izenburua artxioban dudana idazki batek. 1976koa da. Bizkaitik zetorren. Hiru zati ditu: 1. Gaurko egoera; 2. Politika ofiziala; 3. Gure aukera. Bizkaia aldeko hainbat elkarte eta erakunde kulturazkoak eta sozialek izenpetzen du. Agiria printzipio nagusitan eta zenbait eskabide konkretutan gelditzen da.

Sinadura berrientzat irekia gelditu zen. Ez dakit aurrerabiderik izan zuenik: uste dudenez, ez.

Euskararen ofizialketasunaren aldeko agiria. Beste idazki baten titulua da. 1977koa da hori. Eta Gipuzkoan landu zen. Bi zati nagusi ditu: 1. "Gobernuari eta ofizial erakundeek", hiru kapitulutan banatua: a) Irakaskuntza, b) Komunikabideak, c) Administrazioa; 2. "Iritzi publikoari". Lehen zatian gehienbat eskabideak biltzen dira: bigarrenean, gizarte osoari euskararen aldeko deia egiteaz gain, puntu

konkretu batzuri buruz beren hitza ematen dute izenpetzaileek. Hainbat talde eta elkarteren artean landu zen agiri hori; eta Donostian egiteko manifestaldi handi batez azken sinadura soziala eman nahi zitzaion.

Baina, bestelako gorabeherak tartean, ez zen manifestaldia egin; eta horretan gelditu zen sinatzaileen eskabidea eta hitza.

Euskal kulturaren aldeko erakunde nazional bat eraikitzeke hastapenetan / Inicio para la formación de un organismo nacional de defensa de la cultura vasca. Beste dei-agiri baten izenburua da. Horrekin jositako ditudan paperetan, bilerratarako bi dei agertzen dira (1977ko azaroan 26rako eta 1978ko urtarrileko 14rako). Nafarroatik zetorren oraingo ekinaldi hau. Asmoaren helburua honela definitzen da: "Euskal Kultur Gestora Orokor bat eraikitzea, zeina gure pentsakeraren berbizkudearen bidean, gure nortasunaren birbaieztapenean eta gure herri askatasunaren finkapenean, hauk baitira gure gazteria bereganada dezaiken kultur bizi batek eman diezazkigukeen ondorioak, kultur alternatiba bat izan nahi baituke autonomi prozesuaren barruan". "Gestora orokorra" eta "alternatiba" hitzak nagusitzen dira hor.

Nafarroan bideratu zen asmoa (Iruñean eta Altsasun egindako bilertetan), eta Euskal Herri osora zabaltu nahi izan zen. Gogoan dut horretarako Sto. Tomas lizeoan egindako bilera pare bat. Horietan eskubartu zutenak: "...animar, coordinar y apoyar las iniciativas culturales existentes...". "El Gobierno laborará intensamente y pondrá los medios para que esta coordinación empiece a darse en el más breve plazo posible. Esto es especialmente válido, como ya ha sido apuntado arriba, tratándose del desarrollo y adecuación del euskara".

Baina 1978ko udazkenean bertan sortu zen EHE (Euskal Herriaren Euskaraz), euskararen aldeko mobilizazio, jarkiera eta bururakaren eragile bazela. Eta bere lehen bi urtetako ekintzak manifestaldi handi batetan burutu zituen: 1980ko apirilaren 19an Donostian Euskararen alde egindako hartan, 20.000 lagunetik gora kontatu zituzten berriemalkek.

1980-1982

Plangintza orokorra ez da etorri eta koordinazioa ez da aurrera eramain Eusko Jaurilaritzen aldetik.

## 1976-1980

Urrerengoa bilera Altsasun egitekoaren Hartarako deia oso zabala zen, Euskal Herriko euskal kultur talde, elkarte eta erakunde herritar hedatu guztiak edo zuzendua. Ez dakit bilera hori ospatu zenik. Baina zer gertatu zen asmo horrekin? Zeinen eskuetan suntsitu zen?

Gerero etorri ziren Konstituzioaren inguruko burrukak eta horri buruzko erreferendua (1978ko udazkenean); eta hauteskunde orokorrak, Madrildu Parlamenturako, eta lokalak, PNVren garaipena eta beraren "gubernu preautonomikoa" (1979ko udaberriaren); eta Euskal Herriko Estatuaren inguruko eztabaida-burrukak eta horri buruzko erreferendua (1979ko udazkenean); eta hauteskunde autonomikoak (euskal Parlamenturako) (1980ko martxoan). Eta horri zen PNVren Eusko Jaurilaritza... Nafarroan, berriz, 1979ko udaberriaren sortutako Parlamentu forala, Diputazioa eta udalak.

Instituzio publiko ofizial berrien garaia zen. Eusko Jaurilaritzak bere hitza, programa eta egutegia eman zituen: "Ley de protección a las publicaciones en euskara de carácter periódico" (4 trimestre 1980), "Ley de protección del Euskara" (1 trimestre 1991), "Estatuto de ikastolas" (4 trimestre 1981)... Eta bere programan esaten zuen: "...animar, coordinar y apoyar las iniciativas culturales existentes...". "El Gobierno laborará intensamente y pondrá los medios para que esta coordinación empiece a darse en el más breve plazo posible. Esto es especialmente válido, como ya ha sido apuntado arriba, tratándose del desarrollo y adecuación del euskara".

Baina 1978ko udazkenean bertan sortu zen EHE (Euskal Herriaren Euskaraz), euskararen aldeko mobilizazio, jarkiera eta bururakaren eragile bazela. Eta bere lehen bi urtetako ekintzak manifestaldi handi batetan burutu zituen: 1980ko apirilaren 19an Donostian Euskararen alde egindako hartan, 20.000 lagunetik gora kontatu zituzten berriemalkek.

## 1980-1982

Plangintza orokorra ez da etorri eta koordinazioa ez da aurrera eramain Eusko Jaurilaritzen aldetik.

Azken hiru urteotan ikastolako eta eskolako euskalduntze lanaren muga handiak nabarmendu dira. Hainbat euskal aldirik itorik "hil" da. Alfabetatze-euskalduntze helduena oso motz gelditu da. Ad-

ministrazio publikoaren euskalduntzea sarritan itxura hutsa izan da. Euskal komunikabideak oraindik ez dira abiatu eta ia ez dakigu nola abiatuko diren.

Bitartean, euskal kultur sail bakoitzeko batasuna lortzeko ahaleginak bultzatu izan dira, sarritan sailako interesak defendatzeko, baina ia denetan interes eta pentsaera ezberdinen saretan nahasi eta karamilatu dira asmo horiek ere. Aski da begiratzeko, azken urteotan ikastolatan gertatu diren jokabide ezberdin eta sarritan kontrakoak; euskal aldirikarik eta argialdirik ez dute errebendikaziotarako ere gerturatu plataforma oinarrikoenik ere lortu; Alfabetatze-Euskalduntze ekintzan "gera zibila" dago HABERen eta AEKren artean.

Egoera eta giro horretatik supertu dira berriro asmo zahar haiek, alde batetik eta bestetik, eta sailen. Eta "plangintza orokorra", "alternatiba", "koordinazioa": hitz guzti hauek berriro indartu dira, eta orain ez Instituzio publikoen aldetik, oinarriko kultur ekintzen eta elkarten aldetik baizik.

1982. urte honetan hiru aldetatik behintzat eragin nahi izan zaien euskal kultur talde, elkarte eta erakunde oinarrikoen koordinazioa zabalari. Aurrenik Eskola Publikoaren eta Adarraren aldetik etorri zen deia eta asmoa; funtsean, irakaskuntza sailko koordinazioa bilatzen zen, baina asmoa zabalagoa zen. Bilerak egin ziren; artikulak idatzi ziren; azterketak egin ziren... Baina horretan gelditu zen nonbait asmoa. Horri txanda hartuaz bezala, etorri zen deia eta bultzada EHEren inguruan eta horrek eraginda, aurtengo udaberriaren: euskal kultur sektore guztien arteko koordinazioa lortzeko, euskararen normalizazioa. Deiak, bilerak, azterketak, programak: ez da asmoa eta proiektua hil, baina geldi xamartua egon da aspalditxo.

Orain berriz AEKren eskuetara igaro da nonbait aspaldiko asmo berrituaren testigua. Neguan gaude. Eta aurreko ekinaldien haritik dator berriro deia: Koordinazioaren beharra dago, oinarriko talde, elkarte eta erakundeetatik hasita. Azken bultzada ematera dator AEK.

## Zapi urtetako itxaropenak eta etsipenak

Datu batzu eta eskema bat eman dut azken zapi urtetakoa. Bakoitzak emango du noski gorabehera

guzti horien azalpena, onena derizkiona. Ni neu ezin naiz ohar batzu egin gabe gelditu.

1). 1976ko uda hartan UEUK bere "manifestuan" "Euskal kultur erakunde orokor eta koordinatzaile bat" sortu beharra adierazi zuenetik, ia etengabe agertu da behin eta berriro, alde batetik nahiz bestetik, koordinazio zabalaren eta plangintza orokorraren beharra, euskal kultura eta euskara zabalatzeko, zentzuz programatzeko eta aurrerabidean jartzeko. Zoritzarrez, deia, asmo eta proiektu guzti horiek ez dira inoiz benetan mamitu.

2). Instituzio publiko "berriak" etorri zirenean, euskal kulturaren alokerri langie eta elkarte zenbaiten aldetik, trasposizio bat gertatu zen; horiek uste zuten uste onez, ordu arteko errebendikazioak bereganatuak zituztela instituzio berriek, eta behetik egin nahi zen koordinazioa eta plangintza orokorra goitik etorriko zirela. Erresistentziaren izpiritu eta bidea utzirik, "instituzionalismoaren" ametsetan erori ziren euskal kultur gile asko.

3). Beste asko, ordea, euskal kulturaren indarra eta etorkizuna oinarriko ekintza kulturazkoan eta burrukan zegoela sinetsita zegoen: erresistentziari eutsi behar zitzaioela. Baina bi akats izan ditu sektore honek: batetik, ez da gai izan, bere aldetik, talde eta elkarten koordinazioa lortzeko, eta sail eta erakunde bakoitzak bere aldetik jokatu du funtsean, bakoitza bere burrukan sartuta; bestetik, plangintza orokorraren beharraz, "alternatibismoan" erori dira, baina hitzez bakarrak eta benetako alternatiba globala lantzeko gauza izan gabe.

4). Orain, haien zati eta hauen zati etorria da desliluramen-garaia. Ez instituzionalismoak eta ez alternatibismoak dute aurrerabiderik, euskal kulturaren dinamika zehazteko eta horren aldeko burruka indarberritzeko: Euskal Kultura bere barritik eta bere osoan biziberitzeko, finkatzeko eta zabalatzeko.

5). Euskal kultur talde, elkarte eta erakunde oinarrikoak elkartzea eta koordinatzea asmo usteldua ote, zapi urtetan zehar hutsegindako ondore? Nere uestez, ez da usteldu, heldu baizik. Hainbat ekinaldiren ondoren, eta guztion "desliluramenaren" bidetik, inisia da horretarako garaia: landuta dago horretarako lurra. Ereiten hasi behar dugu.

Paulo AGIRREBALTZATEGI

## euskararen greba: euskara kalera

Ikasturte honen hasieran Etxenike Kontseilariak eman zituen, elkarriketa batetan, euskalduntze bidean gaur egongo diren umean zifrak. Nafarrokoenik ez, jakina. Guroi triumfalista batetan, zifrak liluragarriak ziren: Euskararen egoera eskolatan, ordea, alderantzizkoa da. Zifrak egiaz izan daitezke, nolabait, baina errealitateak esaten du gaurko umeak ez direla euskaldunduko, eskolan bidez behintzat.

Zifretan egon da aurrerapena azken aldi honetan, baina koalitioboki ez da aurrerapenik, eon.

Erdal irakasleen erreziklajea, nahi eta nahiezkoa da. Baina

gaurko errotua gutiegikoa da: aurtun hirurogeiko bakarrak egingo dute kurtislo intensiboa. Egin dutenen esperientziak esaten du mintza jatorra lortzeko, beste ikastaro bat behar dutela, baina hau ez da egiten. Horrela maisu hauek ezin eman ganorazko irakaskuntzarik, nahiz borondate onena izan. Eta kurtisloak egindako askotaz ez da inor arduratu eta erdaraz ematen ari dira. Beraz guti eta eskasa irakasleen erreziklajea. Hemen inbertsio handi bat egin beharra, nahi eta nahiezkoa da. Eta ez da egin nahi.

Beredu aukeratu dute eskola askotan, hau da: irakaskuntza bi hiz-

kuntzetan egitea. Pauso jatorra. Baina arazo hau ezin daiteke utzi, beste gabe, klausorren arabera. A, B eta D ereduaren aplikazioaren azterketa eta plangintza berri bat beharrezkoa da. Baina honek dakar lehen aipaturiko irakasleen erreziklajearen arazoak: nola ezarri B eredu euskal irakasleen kontrolik gabe, erdal irakasleak euskaldunduko gabe, eta nola garantizatu B ereduaren jarrapena, irakasleen euskalduntzea gehitu gabe?

Bestalde, material, diru, gela eta abarren eskasia, lotsagarria da. B ereduaren dabilzan irakasketa materiale prestaketak erreko ditu. Gelarik gela dabilzanak, espezi-

koak, bakardade osoan, orientabide gabe dabilta. Bi koordinatzaile bakarrak dituzte Gipuzkoako osorako! Euskarerentzat ordu guti eta askotan, ezorduetan. Askotan ume-poruru gehiegizkoa.

Eta hau dena horrela, inguruak lehen bezain erdaldun jarraitzen du. Inguru euskalduntzeari buruz ez da ezer egiten. Beraz, ondorioa argia da: Gaurko umeak ez dira euskaldunduko plangintza orokor jator eta benetakoak egiten ez bada.

Eskola Publiko bakarra da irtenbide bakarra. Baina Eusko Jaurilaritzak pr oposatzen duen ikastolatarako Estatutua irakurriz garbi dago ikastolak EAItaren ikastetxe

pribatuak izango direla, nahiz dohainik, eta gaurko Eskola Publiko edo Nazionalak, herri hehearen eskola, bigarren mailako eskola bezala hartuak izango direla.

Egoera honetan, STEE-EILASEk onhartu eta bultzatu du euskara greban eguna. Euskararen egoera kaleratu behar delako eta euskarari buruz benetako plangintza bat lortu behar delako, denen artean eginko plangintza. Zeren Jaurilaritzaren plangintza, kazkar gelditzen da eta bere interesei mugatua.

Beraz abenduaren 15ean Euskara kalera. Euskadi berreuskaldunduko eta alfabetatzeko bidean jartzeko. STEE-EILAS